

Santa Ageda

Joxean AGIRRE

San Anton joan da, badator Santa Ageda eta gogoratu naiz orain urte asko, santa horri buruzko erreportaje bat egiten ari nintze-la, siziliar neska erdi aroko *sex simbol* gisa definitzea bururatu zitzaidala, kronikari garaikideak haren edertasun itsugarriaz nola mintzo ziren ikusita, eta kexa batzuk jaso nituela, fede kontuak fribolitate gehiegiz tratatzen nituelako. Siziliako aktoreren bat izango nuen buruan, asko ziren garai hartan, edo italiarrerekin fijazioren bat izango nuen, laneko ordenagailuko pantailan ere Monica Bellucci gazte baten irudia bainuen, biluzik, beste batzuek Mont Blancen profila edo Ipanemako hondartza zuten bezalaxe.

Badakit Santa Ageda genero indarke-riaren biktima izan zela eta horren

oihartzun gisa beharbada leku batzue-tan, Gaztelan eta Leonen esterako, emakumeei entregatzen zitzaieiela egun horretan udaleko aginte makila. Orain seguruenik udal horietako asko emakumeen esku egongo dira. Baina Europa osoan hedatu zen martiriaren izena eta, dirudienez, emakumearen edertasuna izan zen genero maskulinoa liluratu zuena; eta zinemarik eta Youtuberik ez zen garai haietan, pentsatzekoa da gure arbasoek, *voyeur* asegitzen gisan, tarte luzeak egingo zituztela hari begira elizako ilunpeetan, beste arbaso batzuek San Sebastian gazte eta ederraren irudiari begiratuko zioten antzera.

Kexak jaso nituen, baina gutxi egongo dira santa hori nik adina maitatu due-nik. Umeak ginela, aita koplari ateratzen

zen eskeko talde handi batekin, eta goi-zeko lauak aldera atarira iristen zire-nean, amak esnatu egiten gintuen atearen bestaldetik aitaren koplak entzuteko, ordurako ahotsa erabat hondatuta bazekarren ere. Koskortu ginelarik, aita idatzitako santaren bizitza kantatuz ibiltzen ginen etxez etxe. «Santa Agedan azkenan berri nahi duenak enteratu/ Cati-niako ziudadean hil zen eta enterratu», kantatzen genuen. Gerora ere gogokoak izan ditut santa eskeak eta seguru nago datorren asteburuan ere, neure kasa bes-terik ez bada, koplaren batzuk botako dizkiodala; zeren eta santa miresgarri as-ko baitira, santa Katalinak bioleta usaina omen zuen hil ondoren, Santa Teresak jasminarena, baina ederrean ez dago Agedari irabaziko dionik. •

Berriketan

Maddi AIESTARAN
IPARRAGIRRE

Lagun batek bere etxeko giltzak utzi zizkigun bera parrandarako gogoz zela-eta. Agur esan ge-nion, oso ondo pasa, eta parran-darik ez egitea erabaki genuenok etxera abiatu ginen. Lau lagun, bosgarrenaren etxera. Goiz zen oraindik. Kazola bete genuen infusiotarako urez. Argienek ne-guko pijama bana zekarten motxilan. Besteok katilua inguratu genuen estu-xeago bi eskuekin. Sofan eseri ginen laurok, mantaren pean. Eta tragoxka ba-ten eta hurrengoaren artean abiatutako elkarriketaz, berotu ziren mantaz kan-poko gorputz-adarrak ere.

Urre koloreko paperez bildutako txo-kolatezko bonboiak elkarri banatu aha-la, hitz egiten genuen zerari buruz eta

akordatzen ginen orduko hartaz eta egiten genuen irri ez-dakit-zergatik. Berriketan gustura aritzea oso gauza poli-ta da. Susmoa hartuta nago ez ote du-gun oro lehenesten hitz egitearen gainetik: elkarrekin hitz egiten dugu kafe bat hartuz, mugikorreko mezuak irakurri ahala, autobusera bidean, kozi-natu bitartean, parrandan dantzan ari garela, ez-dakit-zein ez-dakit-zer azal-tzen ari denean eta telebista programa interesgarrienari zeharka begiratzen diogunean. Susmoa hartuta nago ez ote garen ari afera esplizitueta mugatzen elkarri entzutea, elkarrekin hitz egitea; ez ote dugun elkarriketa unean uneko tramite bihurtu. Baina gauza jakina da elkarri entzunez berriketan aritzeak

zenbateraino egin diezaiokeen on zei-nahi harremani.

Aurreko hartan, egunak argitu zuen elkarri egindako hitzek inoren nekerik pizterako. Nerabazaroko lehenengo pa-rrenda luzatuetan nola, barre egin ge-nuen ordulariari begiratu genionean: “gaupasa”. Jarraituko genukeen poza-rren hizketan, honi eta hari buruz zeto-zkigunak kontatzen, konpartitzen; ordea, parrandatik bueltan zetorren bosgarren lagunaren harridurazko neke aurpegiak kutsatu zigun zeozer, eta hartu zuten batzuek lehenengo autobusa eta bes-teok ohea.

Ez dugu askotan horrelako planik egin izan; baina era polita da larunbat gaua luzatzeko. •